

**ENTZUMENA**

13

Azalpena: 6

Elkarreragina: 8

**AZALPENA:**

Ez da gai izan testuaren informazio nagusia emateko. Motz geratzen da bakarrizketan, aztertzaileak gogorarazi eta lagundu behar izan dio galdera batzuk eginda denbora hori betetzen. Hala ere, ez da horretarako ere gai izan.

Zailtasun handiak ditu adierazi nahi duena esateko. Ideien hurrenkeran informazio hutsune handiak ditu, nahastu egiten da eta esan nahi duenaren hariari berrekiten dionean ez du diskurtsoa modu koherentean antolatzen asmatu.

Gaia garatzean, zehaztasun eta argitasun falta nabaria du.

Akats larri ugari egiten ditu, batzuk sistematikoak: ergatiboaren erabilera, aditz komunztadura, sintaxia oinarritzakoa...: “ Zeren eta... hasten naiz?” “familia askok itsasontzitik bizi ziren”, “Jon Ander de la Hoz idatzi zuen”, “Itsasontzi kultur asko dago”...

Erritmoa, ahoskera, jarioa, hizkuntz baliabideak... C1 mailatik oso urrun daude.

**ELKARRERAGINA:**

Kosta egiten zaio egokitutako ikuspuntua garatzea. Argudio pobreak darabiltza bere jarduna defendatzeko.

Adierazi nahi duena adierazteko zailtasunak ditu: lexikoan hutsuneak, morfologia eta sintaxian gorabeherak...

Akats ugari egiten ditu eta batzuetan larriak dira: “ Edozien munduko pertsonarekin...”, Nik saiatzen naiz mugikorra ez hartu, zeren...”, Harreman sozialak izatea aurpegira...”, “Horrela ligatzen zara...”....

Sarritan esaldiak bukatu gabe uzten ditu “gurasoek kontrola ezarri behar...” ; gehienetan, baliabide faltak eraginda.

Aztertzaileak parte hartu behar izan du azterketari biei laguntzeko.

**C1 mailaren langatik oso azpian dago.**